



2019-20 IKASKETA PLAN BERRIA

6/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzakoak, ezartzen du hezkuntza ikasgaiak A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailatan antolatzen direla, eta horiek Europako Erreferentzia Markoaren A, B eta C maileri dagozkie.

Abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuaren bidez finkatzen dira, egiaztapenaren ondorioetarako, oinarrizko mailaren gutxieneko eskakizunak eta oinarrizko curriculumak B1, B2, C1 eta C2 mailatarako. Errege Dekretu horretan datoz baita ere Erkidegoek bete beharreko jarraibideak ikasketa plan berria antolatzeko.

Tramitazioan dagoen Erkidego honetako Dekretua argitaratu bitartean, 2019/2020 ikasturterako ikasketa plan berriaren laburpen bat agertzen dizuegu eta maila batetik bestera pasatzeko aukerak ere azaltzen ditugu.

Antolamendua:


- 1.- Oinarrizko mailako curriculumak bi kurtso izango ditu. Kurtso bat oinarrizko A1 mailarako eta beste kurtso bat oinarrizko A2 mailarako.
- 2.- Tarteko mailako curriculumak hiru kurtso izango ditu. Kurtso bat tarteko B1 mailarako eta bi kurtso (B2.1 eta B2.2) tarteko B2 mailarako. Tarteko B2 mailaren ziurtagiria lortzeko, B2.2 kurtsoa gainditu beharko da.
- 3.- Maila aurreratuko curriculumak hiru kurtso izango ditu. Kurtso bat C1 maila aurreraturako eta bi kurtso (C2.1 eta C2.2) C2 maila aurreraturako. C2 maila aurreratuaren ziurtagiria lortzeko, C2.2 kurtsoa gainditu beharko da.
- 4.-Errusiarra hizkuntzaren kasuan (Bilboko Hizkuntza Eskolan irakasten da) B1 (tarteko maila) ere 2 ikasturtetan banatuko da; B1.1 eta B1.2. B1 mailako ziurtagiria B1.2 maila gaindituta lortuko da.


Aurreko ikasturtearekin konparaketa:

2018/19 Ikasturtea	2019/20 Ikasturtea
A1	A1
A2	A2
B1.1	B1
B1.2	
B2	B2.1
	B2.2
C1	C1
C2	C2



**2018-19 ikasturtean ikasle ofizial moduan Euskadiko HEO
batean matrikulatuta egon bazara, 2019-20 ikasturtean ZEIN
MAILATAN MATRIKULATUKO ZARA?**





*Gaur egun ez da ematen

Zenbat urte kurtso bakoitzeko?

Modalitate presentzialeko eta erdi-presentzialeko ikasleak ezin izango dira matrikulatu kurtso berean bitan baino gehiagotan. Salbuespen gisa, ikasleak eskatu eta irakasleak proposatuz gero, zuzendaritza-taldeak baimena eman dezake kurtso berean hirugarrenez matrikulatzeko, oinarrizko mailarako muga lau urtekoa delarik; seikoa, bitarteko mailetarako; eta hirukoa, gaitasun mailarako.

ZENBAT URTE DAUZKAT MAILA BAKOITZA GAINDITZEKO?

A1	A2	B1	B2.1	B2.2	C1
2 URTE	2 URTE	2 URTE	2 URTE	2 URTE	2 URTE
4 URTE GUZTIRA		6 URTE GUZTIRA			3 URTE GUZTIRA